

ROSCÓN SOLIDARIO de Bilbao ERREGE-OPILA Bilbon



“BILBOKO ERREGE-OPIL SOLIDARIOAK” MILAKA ERRAZIO SOLIDARIO BANATUKO DITU 2018KO URTARRILAREN 5EAN, OSTIRALA, BILBOKO PLAZA BARRIAN

- [‘Caritas Bizkaia’](#), [‘Lapiko Catering’](#) eta [‘Zazpi Kaleetako Merkatarien Elkartek’](#) errege-opil erraldoi baten 2.500 zati banatuko dituzte datorren asteartean, 2018ko urtarrilaren 5ean (ostirala), eguerdiko HAMABIETATIK (12) aurrera Plaza Barrira hurbildu eta Caritas Bizkaiaren Haurtzaro Programarako 1 €uro ematen dutenen artean (1 €uro pertsonako).
- Opila [‘Bizkaiko Okindegien Elkartea’](#) egiten ari da aurtengoan, ‘Lapiko Catering’-ekin koordinatuta, eta [‘Cafe Iruña Catering’](#)-ek txokolatea eskainiko du, [Kaiku](#) (esnea) eta [Baqué](#) (kakaoa) ekimenerako emandako osagaiekin egindakoa. Halaber, ‘LogiFrio’ Bilbao.
- [BILBAO Ekintzak](#) eta [LABORAL Kutxak](#) babestutako ekimen honetan, Caritas Bizkaiako dozenaka boluntariok parte hartuko dute, ekimena antolatzeaz, dohaintzak jasotzeaz eta bukatu bitartean txokolate zein opila banatzeaz arduratuta.
- Halaber, Caritas Bizkaiak ‘egoeraren analisisa’ eskainiko du oraingoan, erakundearen laguntza jasotzen duten hainbat pertsona eta familiaren ahultasunaz ohartarazteko.

Bilbo, 2017eko abenduaren 27.- Carlos Bargas Caritas Bizkaiaren Zuzendariak, Pilar Alonsok (Bizkaiko Okindegien Elkarteko kidea), Nekane Narbaiza Lapiko Catering-eko gerenteak, Jon Aldeiturriaga Zazpi Kaleetako Merkatarien Elkarteko gerenteak eta Alicia Garmendiak (Iruña Catering) aurkeztu dute "ERREGE OPILA BILBON", [Kaiku](#) (esnea) eta [Baqué](#) (kakaoa) marken lankidetzarekin eta [BILBAO Ekintza](#) eta [LABORAL Kutxaren](#) babesarekin. Ekitaldia datorren ostiralean izango da, urtarrilak 5, Errege bezperan, eguerdiko **12:00etatik** aurrera, Bilboko Zazpi Kaleetan dagoen **Plaza Barrian**. Opil zati eta txokolate edalontziaren prezioa 1 €urokoa izango da pertsonako, **Caritas Bizkaiaren Haurtzaro Programara** bideratzeko. Halaber, ‘LogiFrio’ Bilbao.

Errege-opil erraldoi solidario honen lehenengo zatia **ASTEARTEAN** egingo da, urtarrilak 5, 12:00etan. Gozoki solidarioak **500 kilotik** gorako pisua izango du. Opila egiteko prozesuan 10 pertsonak parte hartuko dute, ‘**Bizkaiko Okindegien Elkarteko**’ eta ‘**Lapiko Catering-eko**’ langileek osatutako taldetik etorritakoek. Prestatzeko, **errezeta tradizionala** jarraituko da. Horretarako, honako osagaiak behar izango dira: **250 kg-tik gora irin, 50 kg-tik gora azukre, 75 kg gurin, 100 dozena arrautza, 25 litro laranja-lore ur, 25 kg legamia, 30 kg fruta azukreztatu apaintzeko eta 5 kg gatz.**

Lehenengo zatia egin ondoren, bertaratutakoek (tartean Bizkaiko politika, gizarte eta kirol arloetako pertsona ezagunek) doan dastatu ahal izango dute gozoki hau. **3.000-3.500 errazio** inguru banatuko direla kalkulatu da.

Opil eta txokolate edalontziak banatzeko, eremuak antolatzeko, Haurtzaro programarako dohaintzak biltzeko etab. **Caritas Bizkaia**ko hamarnaka **boluntario** egongo dira. Halaber, Errege-opil Solidarioa jasoko duen mahaiaren zein gunearen dekorazioa [Bizkaiko Caritasen Familien Programan](#) dauden Bilboko proiektuek prestatu dute.

Goiz osoan zehar [KIDENDA](#)ren stand bat ere izango da eta salgai jarriko ditu **Bidezko Merkataritzako produktuak**. Proiektu hori [Caritas Bizkaia](#), [Elizbarrutiko Misioak](#) eta [Alboan](#)-ek laguntzen dute. Gainera, **globoflexia** tailerrak egongo dira goiz osoan, beren familiekin batera gerturatzeko diren umeei ondo pasatzeko.

ERREGE-OPIL SOLIDARIOA ANTOLATZEN DUTEN ERAKUNDEAK:

Caritas Bizkaia, Lapiko Catering eta Zazpi Kaleetako Merkatarien Elkartearen helburu nagusia haurtzaroarekiko **elkartasuna** erakustea da. Horregatik, [‘Caritas Bizkaia’ren Haurtzaro Programari](#) lagundu eta abenduaren 5ean Plaza Barrira hurbiltzeko deia egin nahi dute. Hala nahi dutenek, opila eta txokolatea banatuko diren karpan jarriko diren itsulapikoetan eman hala izango dute dohaintza. Bildutako dirua Eskola eta Gizarte mailan laguntza emateko Bizkaian dauden hogeitik gora Proiektuetara (PASE) bideratuko da. Egun, Caritas Bizkaia-aren Haurtzaro Programaren barruan dauden proiektuak dira horiek. Proiektu horien bidez adin txikikoen gaitasun pertsonal, sozial, kognitibo eta hezkuntza eta familia mailako gaitasunak sustatu eta indartzen dira. Parte hartzen duten haur eta nerabeak 5 eta 16 urte bitartekoak dira, eta beren familiak arrisku edo desabantaila egoeran daude gizartean. Eskola eta Gizarte laguntza emateko Proiektu bakoitzean osasun arloa eta gizarte, eskola, familia zein aisialdi arloko gaitasunak lantzen dira.

Lapiko Catering Gizarteratze Enpresa da “Roscón Solidario de Bilbao / Errege-Opila Bilbon” ekimena koordinatzeko arduraduna. Beste behin, Gabonetako jaien bukaera gozotu nahi du Hiribilduan Opil tradizional hau eskainita. Gizarteratze enpresa hau **Peñascal Kooperatiba Elkarteak** eta **Caritas Bizkaia**ek sustatzen dute. Lapiko Catering-en helburua da **langabezia eta gizarte bazterkeria arriskuan edo egoeran dauden pertsonak gizarteratzea eta lan-munduan txertatzea**. Sukalde nagusian 300 menu egiten dira egunero Caritasen gizarte jantokietan banatzeko. Lapiko Catering kalitatearen sinonimo da, baita zerbitzuaren bermea ere. Izan ere, bezeroen eskarrietara egokitutako karta zabala eskaintzen du; hala nola, *coffe break*-ak, lunchak, koktelak, herri bazkariak, ospakizunak, enpresa bilerak eta mota guztietako ekintzak.

‘**Bizkaiko Okindegien Elkarte**a’ 1977. urtean sortu zen, sektorea ordezkatu eta bere interesak defendatzeko, langile egonkor, trebatu eta kualifikatua sustatuz. Enpresa kidetuek (lantegi eta bulegoak) Bizkaiko okintza sektorearen %90 baino gehiago ordezkatzeko dute eta 4.000 pertsona baino gehiagori lana ematen diote. Elkarteak artisau produktua babestu eta bultzatzen du; produktu freskoa, bertokoa eta kalitate onenekoa. Iaz Bizkaiko okintza eskola sortu zuen. Bertan sektoreko langileentzako perfekzionamendu-ikastaroak eta Lanbideko homologatutako ziurtagiri profesionalak eskaintzen dituzte. Gainera, Munduko Ogiaren Eguna ospatzeko ekimen ezberdinak babestu eta antolatzen ditu (urriaren 16an Bilboko Areatzan), baita "OPIL SOLIDARIOA" ekimen hau ere.

Bilboko **Zazpi Kaleetako Merkatarien Elkarte**a Bilboko merkataria eta ostalarien talde aitzindaria da eta Hiribilduko Erdigune Historikoan garatzen du bere jarduerak. 1969an sortu zenetik, **eragile aktiboa da Bilboko alde zaharreko bizitza sozialaren dinamizazioan**, ekimen ugari sustatu eta babesten baititu.

Elizbarrutiaren gizarte eta karitate erakundea da Caritas, eta Bizkaia osoan bazterkeria arriskuan dauden pertsonen laguntzea du helburu. Horretarako, **gizarte esku-hartzerako zenbait programa** ditu: harrera, familia-gizarteratzea, haurtzaroa, nagusiak, lan-munduan txertatzea (enplegua), etxerik gabeko pertsonak, menpekotasunak, zerbitzu juridiko eta psikologikoak... Horrez gain, nazioarteko kooperazio programa eta beste sail batzuk ere baditu, hala nola komunitate-animaziorako zerbitzuak, sentsibilizazioa eta komunikazioa, boluntariora, ikerketa, prestakuntza, administrazioa, eta abar.

Egoeraren azterketa:

Pobrezia, kalteberatasun eta gizarte-bazterkeria egoeran dauden pertsonen laguntza ematen diegun erakundea garen heinean, Caritas Bizkaian ikusten ari gara hobekuntza ekonomikoaren zantzuak eman arren, herritar batzuk pobrezia eta babesgabetasun espiral batean ainguratuta geratzen ari direla, eta zaila dela hortik irtetea. Babesgabetasun egoerak gero eta konplexuagoak dira eta erantzun sendo eta osoagoak behar dituzte. Familia horien bizimoduaren ezaugarriak langabezia eta lan prekarietatea izaten dira, eta horrela bizirauten dute. Era berean, etxebizitzaren gaia izaten da haien arazo nagusietakoa. Azken batean, lan prekario batek eragiten duen ziurgabetasunari gehitzen zaio mantenimendu eta hornigaien gastuei aurre egin beharra.

Harremanen dimentsioa oso konektatuta dago eta eragin handia dauka gizarteratze-bazterkeria prozesuetan, baita pobrezia belaunaldien arteko transmisioan ere. Zaintzen gaia garrantzitsua izaten da harremanei dagokionez, bai bizitzaren lehen etapetan, baita zahartze-prozesuetan ere. Zaintza eta harreman beharrak erronka handiak dira “gizartearen zahartze” prozesuari dagokionez. Familia elkartasun eremu garrantzitsua da oraindik ere. Merkatua eta batzuetan erakundeak iristen ez diren lekuetara familia iristen ari da. Denboran luzatzen ari den sostengu lan horrek suposatzen duen ahaleginak eta desgasteak kezkatzen gaituzte, batez ere, oso ahulak diren familien kasuetan. Zentzu horretan, seniderik ez duten pertsonen egoera oso kezkarria iruditzen zaigu.

Guraso bakarreko familiak, bereziki seme-alabak dituzten eta laguntza-sare txikia duten emakumeak, oso egoera babesgabeak dauden pertsonak dira, askok seme-alaben bizi-kalitatea eta euren hobetzeko zailtasun handiak baitituzte. Zaintzen eremuaren eta hobekuntzarako aukeren (prestakuntza, harremanak, familia, lana) arteko kontziliazioari ekin behar diogu, familia horiek babesgabetasun egoerari aurre egin ahal izateko.

Caritasen uste dugu –gure esperientziaren arabera- posible dela pertsona horien bizi-kalitatea hobetzeko aukerak sortzea, hainbat tresnaren bidez, hala nola, babes ekonomikoa sustatzekoak; pertsonen parte-hartzea eta beren harremanen garapena bultzatzen duten gizarte ekimenak; lan duin bat lortzekoak; zaintzen eremuaren eta laneratze eta gizarteratze eremuaren arteko kontziliazioa gauzatzekoak...

Horregatik guztiagatik, Caritas Bizkaia “Izan pobrezia kontrako konponbidearen partaide: **IZAN ZAITEZ Caritasen kide! :: SÉ PARTE de la solución contra la pobreza ¡Hazte de Cáritas! - Zure ahalegina denon atsegina :: Tu COMPROMISO mejora el MUNDO**”, **KANPAINA** proposatzen du; egunero, Bizkaiko jendearen artean ahalik eta bazkide gehien lortzeko, ez soilik Gabonetan.

ROSCÓN SOLIDARIO de Bilbao ERREGÉ-OPILA Bilbon



EL “ROSCÓN SOLIDARIO DE BILBAO / ERREGÉ-OPILA BILBON” REPARTIRÁ MILES DE RACIONES SOLIDARIAS EL VIERNES 5 DE ENERO DE 2018 EN LA PLAZA NUEVA DE BILBAO

- [‘Cáritas Bizkaia’](#), [‘Lapiko Catering’](#) y la [‘Asociación de Comerciantes del Casco Viejo de Bilbao’](#) repartirán miles de raciones de un gigantesco roscón entre quienes se acerquen a la Plaza Nueva el próximo viernes, 5 de enero de 2018, a partir de las DOCE (12) del mediodía, donando 1 €uro por persona para los proyectos del ‘Programa de Infancia’ de Cáritas Bizkaia
- El roscón es elaborado un año más por la [‘Asociación de Panaderías de Bizkaia-Bizkaiko Okindegien Elkarte’](#) en coordinación con ‘Lapiko Catering’, mientras que [‘Café Iruña Catering’](#) ofrecerá otros tantos vasos de chocolate elaborado por ellos, con ingredientes donados para la ocasión por [Kaiku](#) (leche) y [Baqué](#) (cacao). También colabora desde este año ‘LogiFrio Bilbao’.
- El acto, que cuenta con el patrocinio de [BILBAO Ekintza](#) y [LABORAL Kutxa](#), y contará también con la participación de decenas de personas voluntarias de Cáritas Bizkaia, que se encargarán de organizar el acto, recoger los donativos y repartir el chocolate y el roscón hasta su finalización.
- Asimismo, Cáritas Bizkaia presenta en esta ocasión un [‘análisis de situación’](#) alertando de la fragilidad de muchas de las personas y familias acompañadas por la entidad.

Bilbao, 27 de diciembre de 2017.- Carlos Bargas, director de Cáritas Bizkaia, Pilar Alonso (de la Asociación de Panaderías de Bizkaia-B.O.E.), Nekane Narbaiza, gerente de Lapiko Catering, Jon Aldeiturriaga, gerente de la Asociación de Comerciantes del Casco Viejo, y Alicia Garmendia (de Iruña Catering), han presentado el “ROSCÓN SOLIDARIO DE BILBAO” / “ERREGÉ OPILA BILBON”, acción para cuya puesta en marcha cuentan con la colaboración de [Kaiku](#) (leche) y [Baqué](#) (cacao), así como el patrocinio de [BILBAO Ekintza](#) y [LABORAL Kutxa](#), con la incorporación este año de la colaboración de LogiFrio’ Bilbao. - El evento tendrá lugar el próximo **viernes, 5 de enero**, víspera de Reyes, a partir de las **12:00** del mediodía en la **Plaza Nueva** del Casco Viejo de Bilbao. El precio de cada ración de roscón y vaso de chocolate caliente por persona será de **tan solo 1 €uro**, destinado íntegramente a los proyectos de apoyo socio educativo del **‘Programa de Infancia’** de Cáritas Bizkaia.

El primer corte de este gran roscón solidario se efectuará el viernes, 5 de enero, a las 12:00 horas. El dulce solidario contará con un peso superior a los **500 kilogramos**. En su elaboración participa un equipo de 10 personas de la **‘Asociación de Panaderías de Bizkaia-Bizkaiko Okindegien Elkarte’** y otras tantas de **‘Lapiko Catering’**. Para su preparación se seguirá la **receta tradicional** y serán necesarios más de **250 kilogramos de harina**, más de **50 kg de azúcar**, **75 kg de**

mantequilla, 100 docenas de huevos, 25 litros de agua de azahar, 25 kilogramos de levadura, 30 kilogramos de frutas variadas confitadas para su decoración y 5 kg de sal.

Tras el corte inicial, las personas asistentes -entre las que estarán rostros conocidos del mundo político, social y deportivo de Bizkaia- se podrá degustar este manjar, del que se calcula saldrán alrededor de **3.000-3.500 raciones**.

El reparto de las raciones de roscón y de las tazas de chocolate, así como las tareas de organización de los espacios, recogida de los donativos para el programa de Infancia, etc. será realizado por **decenas de personas voluntarias de Cáritas Bizkaia**. Asimismo, la decoración de la mesa y del espacio donde se situará el Roscón Solidario ha sido preparada este año por los proyectos de Bilbao del [Programa de Familia de Cáritas Bizkaia](#).

También habrá durante toda la mañana un ‘stand’ de [KIDENDA](#) con productos de **Comercio Justo** a la venta, proyecto auspiciado por [Cáritas Bizkaia](#), [Misiones Diocesanas](#) y [Alboan](#), así como talleres de *globoflexia* para entretener a los ‘txikis’ que se acerquen con sus familias.

ENTIDADES ORGANIZADORAS DEL ROSCÓN SOLIDARIO:

La **solidaridad** con la infancia es el objetivo que mueve a Cáritas Bizkaia, Lapiko Catering y la Asociación de Comerciantes del Casco Viejo a organizar este evento. Por ello, animan a colaborar con el [Programa de Infancia de ‘Cáritas Bizkaia’](#) a las personas que se acerquen el día 5 a la Plaza Nueva. Quienes lo deseen podrán depositar sus donaciones en las huchas que se colocarán en la carpa de reparto de roscón y chocolate. El dinero recaudado se destinará íntegramente a los más de veinte ‘Proyectos de Apoyo Socio-Educativo’ (PASE) distribuidos por Bizkaia y que forman parte del Programa de Infancia de Cáritas Bizkaia. En estos proyectos se potencian y refuerzan las capacidades personales, sociales, cognitivas, educativas y familiares de los menores. Los niños y adolescentes participantes tienen entre 5 y 16 años y pertenecen a familias en situación de riesgo o desventaja social. En cada Proyecto de Apoyo Socio-Educativo se trabajan las áreas de salud y habilidades sociales, escolar, familiar, ocio y tiempo libre.

‘**Lapiko Catering**’ es la **Empresa de Inserción** encargada de la coordinación del “**Roscón Solidario de Bilbao**” / “**Errege Opila Bilbon**”. Un año más, quiere endulzar el final de las fiestas navideñas con este tradicional Roscón de la Villa. Esta empresa de inserción esta **promovida por Peñascal Kooperatiba Elk. y Cáritas Bizkaia**. El objetivo de Lapiko Catering es la **inserción socio laboral de personas desempleadas que se encuentran en situación o riesgo de exclusión social**. En la cocina central se producen diariamente 300 menús para los comedores sociales de Cáritas. Lapiko Catering es sinónimo de calidad y garantía de servicio, ofreciendo una amplia carta de posibilidades adaptadas a las demandas de los clientes, tales como *coffee breaks*, *lunchs*, cócteles, comidas populares, celebraciones, reuniones de empresa y todo tipo de eventos.

La ‘**Asociación de Panaderías de Bizkaia**’ se constituyó en 1977 para representar y defender los intereses del sector, promoviendo un personal estable, formado y cualificado. Las empresas asociadas (obradores y despachos) representan más de un 90% del sector panadero de Bizkaia y dan empleo a más de 4.000 personas. La Asociación defiende e impulsa el producto artesanal, fresco, de aquí y de máxima calidad. El pasado año creó la escuela de panadería de Bizkaia, donde se imparten cursos de perfeccionamiento para trabajadores del sector, y certificados de profesionalidad homologados por Lanbide. Además, también apoya y organiza diversos eventos como la Celebración del Día Mundial del Pan (el 16 de octubre en el Arenal de Bilbao) y la elaboración del “ROSCON SOLIDARIO”.

La **Asociación de Comerciantes del Casco Viejo de Bilbao** es la agrupación decana de comerciantes y hosteleros de Bilbao y desarrolla su actividad en el Centro Histórico de la Villa.

Desde su creación en 1969 es un **activo agente para la dinamización de la vida social del casco antiguo** de Bilbao, promoviendo y colaborando en numerosos eventos.

Cáritas es la entidad socio-caritativa de la Iglesia Diocesana que atiende a las personas en situación o riesgo de exclusión en toda **Bizkaia**. Para ello, cuenta con **diferentes áreas de intervención social** como acogida, familia-inserción social, infancia, mayores, inserción laboral, personas sin hogar, adicciones, servicios jurídico y psicológico, además del programa de cooperación internacional y los departamentos y servicios de animación comunitaria, sensibilización y comunicación, voluntariado, investigación, formación, administración, etc.

ANÁLISIS DE SITUACIÓN:

Desde la experiencia de acompañamiento a personas en situación de pobreza, vulnerabilidad y exclusión social, en Cáritas Bizkaia observamos que, a pesar de los indicios de mejoría económica, parte de la **población se va quedando anclada** en una espiral de pobreza y vulnerabilidad social de la que es muy difícil salir. Las **situaciones** de mayor vulnerabilidad son **cada vez más complejas** y requieren de **respuestas más intensas e integrales**. Muchas de estas familias sobreviven en unas condiciones de vida caracterizadas por el **desempleo y la precariedad laboral y salarial**. Asimismo, la **vivienda** constituye uno de los principales problemas para estas personas. A la incertidumbre de un empleo precario se suma la incertidumbre de cómo afrontar los gastos de la vivienda.

La dimensión relacional tiene gran influencia en los procesos de inclusión-exclusión, así como en la **transmisión intergeneracional de la pobreza**. **La cuestión de los cuidados a lo largo de la vida** cobra un papel importante en el ámbito relacional, tanto en las primeras etapas de la vida como en los procesos de envejecimiento. Los cuidados y la necesidad de vínculos relacionales suponen un reto ante el proceso de **“envejecimiento de la sociedad”**. La **familia** continúa siendo un **importante espacio de solidaridad**. Donde no llega el mercado, y en ocasiones las instituciones, está llegando la familia. Nos preocupa el esfuerzo y el desgaste que está suponiendo esta labor de sostén mantenida en el tiempo, sobre todo para familias frágiles. Asimismo, nos preocupan las **personas que no cuentan con este apoyo familiar**.

Las familias monoparentales, especialmente las mujeres solas con hijos e hijas a su cargo y escasa red de apoyo es un grupo especialmente vulnerable, con serias dificultades para mejorar sus condiciones de vida y la de hijos e hijas. Es necesario abordar la cuestión de la conciliación entre el espacio de los cuidados y las acciones de mejora (formativas, relacionales, familiares, laborales) necesarias para salir de la vulnerabilidad social en la que se encuentran estas familias.

Desde Cáritas, creemos –desde nuestra experiencia- que **es posible generar alternativas** para la mejora de vida de estas personas, a través de herramientas como la **garantía de protección económica; iniciativas de inclusión social que fortalezcan la participación de las personas y el desarrollo de su dimensión relacional; oportunidades de inclusión laboral digna; oportunidades de conciliación entre el espacio de los cuidados y el espacio de la promoción socio-laboral...**

Por ello, Cáritas Bizkaia propone en la actualidad su **CAMPAÑA “SÉ PARTE de la solución contra la pobreza ¡Hazte de Cáritas! :: IZAN ZAITEZ Caritasen kide! - Tu COMPROMISO mejora el MUNDO :: Zure ahalegina denon atsegina”**, de cara a buscar la colaboración estable como socias del mayor número posible de personas de la sociedad de Bizkaia.

Más información:

Carmelo Corada: 94 402 00 73 (99) - 665 72 38 96 · ccorada@caritasbi.org · www.caritasbi.org